

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
1/2011	R2/2014	2014/10/13	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Bidegabeko diru-sarrerak itzultzea. Atzera egitea

Ebazpena: R2/2014

Espedientea: 1/2011

Vitoria/Gasteiz, 2014ko urriaren 13a

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, Gabriel Casado batzordeburuak eta Isaac Merino Jara eta Francisco Javier Muguruza Arrese batzordekideek osaturikoak, Francisco Javier Muguruza Arresek txostengile gisa jardunez, honako erabaki hau hartu du:

## ERABAKIA

ORDEZKARIA jaunak ERAKUNDEA erakundearen ordezkari-lanetan aurkeztutako idazkiari buruzkoa; idazki horretan, ATZERA EGITEN DU 2007ko ekitaldiko ZENBATEKOA euroko diru-sarrerak itzultzeko Zerga Administrazioko Estatu Agentzian zein Bizkaiko Foru Aldundian aurkeztutako eskaeraren inguruan 2011ko urtarrilaren 28an planteatu zen eta Arbitraje Batzorde honek 1/2011 espediente-zenbakiarekin izapidetzen duen gatazka negatiboan.

## I. AURREKARIAK

1. 2011ko urtarrilaren 31n, ORDEZKARIA jaunak ERAKUNDEA-(r)en ordezkari-lanetan aurkeztutako idazkia sartu zen Arbitraje Batzorde honen Erregistroan; idazki horrek gatazka planteatzen zuen Zerga Administrazioko Estatu Agentziak eta Bizkaiko Foru Aldundiak 2007ko ekitaldiko ZENBATEKOA euroko bidegabeko diru-sarrerak itzultzeari uko egin izanaren ondorioz.

2. 2012ko abenduaren 14an, Zerga Administrazioko Estatu Agentziako zuzendari nagusiaren alegazio-idazkia sartu zen Arbitraje Batzorde honen Erregistroan. Idazki horretan, aurrekariak eta oinarriak azaldu ondoren, gatazka

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
1/2011	R2/2014	2014/10/13	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Bidegabeko diru-sarrerak itzultzea. Atzera egitea

ez onartzeko eskatzen zitzaion Arbitraje Batzordeari, honako arrazoi hau aipatuta: "betebeharpekoak emandako zenbatekoa izangaiak erosteko aukera baliatzearen berme gisa eman zuen, eta eragiketa hori ez dago BEZari lotuta".

3. 2013ko urtarrilaren 18an, Bizkaiko Foru Ogasuneko Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako zuzendariordearen alegazio-idazkia sartu zen Arbitraje Batzorde honen Erregistroan. Idazkian, aurrekariak eta oinarriak azaldu ondoren, gatazka ez onartzeko eskatzen zitzaion Arbitraje Batzordeari, honako arrazoi honengatik: "burututako salerosketa-eragiketa ekonomiko baten aurrean gaude, eragiketa horrek, nolana ere, eskualdatzaileak aitortutako eta eskuratzailerak kendutako BEZaren kuota bat sortu behar zuen, eta ez du zentzurik gaur egun bidegabeko diru-sarrerak itzultzea.

4. 2013ko ekainaren 21ean, ORDEZKARIA jaunak, ERAKUNDEA erakundearen ordezkari-lanetan, lehen idatz-zatian aipatutako gatazkan ATZERA EGITEKO idazkia aurkeztu zuen. Atzera egiteko eskaera administrazio interesdunei jakinarazi zitzairen (2013ko irailaren 13an Bizkaiko Foru Aldundiari, eta 2013ko irailaren 12an Zerga Administrazioako Estatu Agentziari), eta ez dute aurkakotasunik agertu.

## II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1. Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean aurreikusitako Arbitraje Batzordearen Erregelamendua onartzen duen abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuaren 8. artikuluan xedatutakoari jarraiki, "Arbitraje Batzordearen deialdiei, eraketari, bilkurei, ebazpenei, funtzionamendu-erregimenari eta prozedurari dagokienez, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean xedatutakoari jarraituko zaio".

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
1/2011	R2/2014	2014/10/13	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Bidegabeko diru-sarrerak itzultzea. Atzera egitea

2. Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 91 artikulua 2. idatz-zatiak ezartzen duenez, "Administrazioak bete-betean onartuko du atzera egitea edo uko-egitea, eta amaitutzat emango du prozedura; hala ere, ez du prozedura amaitutzat emango, salbu eta hirugarren interesdunik aurkezten bada eta, atzera egitea jakinarazi eta hamar egunetan, prozedura aurrera eramateko eskatzen badute interesdun horiek".

Horri jarraiki, Arbitraje Batzordeak

## **ERABAKI DU**

1. ORDEZKARIA jaunak ERAKUNDEA-(r)en (IFK, LETRA-ZENBAKIA) ordezkari-lanetan Zerga Administrazioiko Estatu Agentziak eta Bizkaiko Foru Aldundiak 2007ko ekitaldiko ZENBATEKOA euroko bidegabeko diru-sarrerak itzultzeari uko egin izanaren ondorioz 2011ko urtarrilaren 31n planteatutako gatazkan atzera egitea onartzea.

2. Jardunen amaiera eta artxibatzea eta horretarako igorritako dokumentazio guztiaren itzultzea agintzea.

3. Erabaki hau erakunde eskatzaileari, Zerga Administrazioiko Estatu Agentziari eta Bizkaiko Foru Aldundiari jakinaraztea.